

# Alaine Agirreren 'Ane' liburua gaztelaniara itzuli du Irati Iturritza poetak



Bermeo

Kultura

Alaine Agirreren Txandaka bildumaren parte diren 'Maren', 'Libe' eta 'Oier' liburuak itzultzeko asmoa ere iragarri dute; 'Pásalo' deituko da bilduma.



Alaine Agirre idazle bermeotarra 'Ane' liburua eskuetan duela. Argazkia: Erein argitaletxea.

2022/02/18

Ane Maruri Aransolo

Alaine Agirre idazle bermeotarraren Txandaka bildumako azken liburua **gaztelara itzuli** du Irati Iturritza poetak: **Ane**. Gaur aurkeztu dute itzulpena Donostian, eta bildumaren parte diren *Maren*, *Libe* eta *Oier* liburuak itzultzeko asmoa iragarri dute; *Pásalo* deituko da bilduma.

“Bildumak **arrakasta handia** izan du gazte eta helduen artean. Liburua osatzen duten lau liburuak berrargiratu egin dira, eta horregatik erabaki dugu **bilduma osoa gaztelaniara** itzultzea; *Pásalo* deituko da. *Anerekin* hasi gara, eta gure asmoa da beste lanak ere itzultzea”, azaldu du gaur Uxue Razquin Erein argitaletxeko editoreak.



*Aneren* aurretik kaleratu zituen Agirrek *Maren*, *Libe* eta *Oier*. Bakoitza bere ezaugarriekin, baina euren bidea deskribitu nahian eta euren bizitza eraiki nahian dabiltzan lau gazte dira. **Gazte literatura egiteko asmoz** sortu zuen bilduma bermeotarrak, Erein argitaletxeagaz batera. “*Maren* liburuarekin hasi ginen, Marenek bere asmoei kasu egiten ikasi zuen, eta bere nahiak bi formatan gauzatu zituen: musikan eta lehenengo aldiz beste neska batekin maitemintzean”, azaldu du Agirrek. Libetaz maitemindu zen Maren, eta ildo horri jarraituta bigarren liburura salto egin zuen bermeotarrak, *Maren* eta *Liberen* arteko harremanean sakonduz. “*Oier* ezagutu genuen gero, ama hiltzen ari zaion gaztea. Amaren gaixotasunak eta minbiziak barne bidaia batean murgilduko du gaztea. Ane, berriz, unibertsitatean dago. Gurasoek jarri dute berea eta beretzat ez den egoera batean. Eta egoera horretan, arnasa hartu ezinik dagoela eta, utzi egiten ditu ikasketak. Beste modu batera eraiki behar du bere bidea. Pisu berria aurkitzen du eta pisukide izango ditu Mikel eta Aitziber. **Pertsonaia berriak** dira. Hala ere, jakingo dugu besteak nondik dabiltzan eta zertan ari diren”, zehaztu du udazleak.

Ane **lau ataletan banatuta** dago, urtaroka. Udazkenean hasten da eleberria, eta atal bakoitza kantu baten zita batekin hasten da. Agertzen diren pertsonaia berriak Aneri bere bidea egiten laguntzen diote: “Atziberrek Aneren kontrapuntu modura funtzionatzen du: ikasketetan buru-belarri ari da, egin behar duen hori egiten. Mikelekin, aldiz, hasieratik dauka konexio berezia”.

Agirreren berbetan, **zalantzez eta galderez**, noraezean pausoak ematen hasteaz eta norbere bizitza norberak eta ingurukoekin eraikitzeaz ari da liburua. Razquinek uste du bermeotarrak liburuan “oso ondo” biltzen dituela **gazteek dituzten ardura eta erantzukizunak**: “Nik askotan errepertzen diet adin horretarako idazten ditugun liburuei, eta iruditzen zait batzuetan ahaztu egiten zaigula zein de gure publikoa. Baina ez da Alaineren kasua”. Dioenez, Ane liburuan idazleak egiten duen gauzarik “interesgarrietako bat” **irakurleekin sortzen duen lotura** da, “gazteen uste eta zalantzak oso ondo transmititzen dituelako”.

**Itzulpenaren zailtasunak**. Zeregin horretan asko laguntzen du Agirrek erabiltzen duen hizkuntza zuzenak, iragazkirik gabekoak. “Oso **hizkuntza naturala** da, eta nire ustez, oso ondo egokitzen da protagonisten adinera”, azaldu du editoreak. Gainera, uste du bermeotarraren ahotsa “erraz” identifikatzen dela, eta horrek daukan balioa nabarmendu du: “Idazlearen ibilbide literarioa jarraitu dugunok **ondo dakigu zein den bere ahotsa**. Azpimarragarria bezain interesgarria da bere obra baikoitzean bere sinadura zein den identifikatu ahal izatea, dela gazteen literaturako obra bat, dela helduentzako eleberria, dela txikienezakoa”.

Razquinek dio egile baten ahotsa erraz identifikatzeak **zaildu** egiten duela **itzultzailearen lana**; “*handicap* handia da”. Izan ere, beste testu bat beste hizkuntza batera itzultzean, jatorrizko testuaren esentziari eutsi behar zaiola dio: “Hizkuntza patu horretan **oso ondo islatuta** geratu behar dira egilearen ideiak eta ahotsak; eta, gainera, natural idatzi beharra dago. Kasu honetan, zailtasunak zailtasun, Iturritzak lortu du Agirreren esentzia mantentzea”. Zehaztu du **argitaletxea “pozik”** dagoela itzulpen lanagaz.

Busturialdeko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa dugu. **Egin zaitez HITZAKide!** Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

**Egin HITZAKide**

## Busturialdeko Hitza Comment Policy

HITZAK ez du irainik edo antzerako hitzik jasotzen duen iruzkinik onartuko.



0 iruzkin Busturialdeko Hitza Disqus' Privacy Policy

1 Saioa hasi

Favorite Tweet Partekatu

Onenetik hasita

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN




Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu Gehitu Disqus zure webgunera Do Not Sell My Data

DISQUS



Agenda						
Martxo 2022						
AL.	AR.	AZ.	OG.	OL.	LR.	IG.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			







### Busturialdeko azken berrien buletina!

Buletina hileko azken barikuetan bidaltzen da, eta Busturialdeko hilabeteko berri nagusiak biltzen ditu.

**Pribatutasun Politika** irakurri eta onartzen dut.

94-627 10 85 / 607 29 22 23

busturialdea@hitza.eus / gernika@hitza.eus

Elbira Iturri kalea, z/g. 48300, Gernika-Lumo

Nor gara



94-618 72 99 / 647 35 56 54

busturialdea@hitza.eus / bermeo@hitza.eus

Atalde 17, atzealdea. 48370, Bermeo

[Argitalpen politika](#)

[Aniztasun politika](#)

[Pribatutasun politika](#)

[Cookieak](#)

Babesleak:

